



Jatorri ezberdina duten andoaindarren lekukotza

Andoaingo Udalak solasaldia antolatu zuen urriaren 2an, Herrien Jaiaren asteen bertan. Jon Maia bertsolaria moderatzaile lanetan aritu zen / 2-3

Ospakizunez beteriko egunak Xoxokan

Astearen hasierako hitzorduen ostean, ostiraletik igandera hamaika ospakizun ezberdin egingo dituzte. Sagardo dastaketarekin amaituko dira, igande arratsaldean / 8-9



**Asier Nieblaren
omenezko lasterketa,
haren heriotzaren
lehen urteurrenarekin
bat eginez** / 15



**Sanmielen
amaiera Urnietan,
Arrosarioko Amaren
omenezko ospakizun
sortarekin** / 10-11



**Buruntzaldeko
ibilbideen egunaren
edizio berria
ospatuko da
igande honetan** / 16

Aiurri.eus webgunea, eskualdeko orainkaria

**Argazkiak, bideoak,
agenda, albisteak,
azken ordukoak...**



Maria Rosalina (Mexiko), Pedro Mateos (Extremadura), Maria Panici (Rumania) Inma Cires (Andaluzia), Jon Maia, Ani Iscoa (Honduras), Juan Luque (Andaluzia) eta Olatz Salvador (Ongi Etorri Eskolara). AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Parte hartzaileak honakoak izan ziren: Juan Luque eta Inma Cires (Andaluzia), Maria Panici (Rumania), Ani Iscoa (Honduras), Maria Rosalina (Mexiko) eta Pedro Mateos (Extremadura). Ekitaldiaren hasieran, Maider Lainez alkateak antolatzaileei eta solaskide aritu zirenei eskertza adierazi zien.

Ekitaldia Triana eta Hogar Extremeño elkarten eta Ongi Etorri Eskolara ekimenaren artean antolatu zuten. Andoaingo Udalaren, Extremadurako Juntaren eta Etxe Erregionalen Elkartearen babesa izan zuten.

Maiak seikoteari hainbat gai jarri zizkion mahai gainean: zerk bultzatuta heldu ziren Euskal Herrira, nolako harrera egin zieten, estereotipoak egiazkoak diren ala ez, nola doakien integrazioa, zer sumatzen duten faltan, jatorriarekin amesten ote duten eta etxera itzultzeko asmorik ba ote duten..., Bizipen anitz entzun zituzten Basterora hurbildu ziren entzuleek, guztiak jakingarriak eta aberatsak. Sei hizlariak kontatutakoei buruzko laburpena dator segidan, une batean edo bestean egindako adierazpenazk uztartuz.

JUAN LUQUE (ANDALUZIA):

- “2009an etorri nintzen, eta sirimiriarekin egin nuen topo, topikoak dion bezala. Hasieratik jabetu nintzen zein den euskaldunaren izaera. Ater-

Jatorri anitzeko andoaindarren lekukotza

Emigrazioari buruzko mahai-ingurua antolatu zuten, Basteron joan den asteazkenean. Munduko kultura desberdinetatik Andoainera etorritako sei pertsonen euren bizipenak kontatu zituzten, Jon Maia bertsolariak gidatutako saioan

kiaren distantzia edo sindromea ezagutu nuela, alegia: zuk ez badidazu hitz egiten, nik ere ez zuri”.

- “Nik ez nekarren aurre juzgurik, baina nirekiko bakarren bat sentitu nuen: Bizkaiko Astilleroetan lanean hasi nintzenean, berehala entzun behar izan nuen andaluziar batek han ez zuela askorik iraungo”.
- “Hitz batzuk (agurra, kafea eskatu...) euskaraz egiten saiatu behar gara, hemengo

hizkuntza delako eta euskaldunak hori estimatzen dutelako”.

- “Itzultzen zarenean zure jaio-terrirra, bertan egun batzuk gustura egiten dituzu, baina laster, hartu zaituen herrira itzultzeko gogoia etortzen zaizu. Hemen dituzu lagunak, hemengo bizimodura ohitu zara eta horrela jarraitu nahi duzu...”.
- “Dramatismoa kendu behar-ko genioke emigrazioaren

fenomenoari. Nonahi mugitzen jakin beharko genuke; izan ere, pertsona normalek badaukagu gaitasuna edozein tokietara egokitzeko”.

PEDRO MATEOS (EXTREMADURA):

- “1962an Donostia aldera etorri nintzen. Extremaduran nekazaria nintzen; lana izugarri egiten zen han, eta irabazi gutxi! Hirugarren egunerako, lana topatu nuen Donostian, eta bertan lau urte

egin nituen; zazpi pertsona gela batean bizi ginen. Oso oroitzapen politak pizten dizkirate urte haiek, Donostiako auzo guztietan dantzaldiak ospatzen baitziren; hori bai, zaindaria jartzen zituzten, neskak eta mutilak gehiegi arrima ez gintezen elkar”.

- “Arrazoi dute egungo emigranteek adierazten dutenean lan-ordu gehiegi egitea egokitzen zaiela; baina 60ko hamarkadako emigranteak ere antzera ibili ginen, egunean 10 ordu eginez astelehenetik larunbata bitarte”.
- “Hemen, aurreneko urte haie- tan integratzeko arazoak eduki zituenak, bere erruz izango zen”.
- “Soldaduska Arakan (Gasteiz) egin nuen; han, batzuetan *mantxurriano* deitzen zidaten, baina guztiakin ondo moldatzen nintzen”.
- “Ni Andoainen erabat integratu nintzen, ikastetxeetako kirol arloan murgildu nintzen eta urte mordoan egin dut zeregin horretan”.
- “Iraganean baneukan jaioterrira hurbiltzeko joera, baina jada ezerk ez nau lotzen. Hiltzen naizenean, Leitzarango bailarara eraman nazaten nahiko nuke”.
- “Demokrazia heldu zenean, hemengoak izan hangoak izan, denek elkarrekin lan egiteko izpiritu hori bazegoen. Gaur egun, nor bere aldetik doa,

indibidualismo handiagoa dago; gogorik ez dago guztien eskubideen alde elkar hartuta borroka egiteko”.

MARIA PANICI (ERRUMANIA):

- “Errumaniar oso soldata txikiak zirela eta, bi alditan saiakera egin nituen Espainiara iristeko, 2008an eta 2016an, eta herrialde horrekin maiteminduta geratu nintzen berehala”.
- “Errumaniar espainieraz mintzatzen diren telenobelek arrakasta handia daukate, eta halaxe trebatu nintzen hizkuntza horrekin. Hala ere, hemen Andoainen sumatzen dudak desberdintasunik handienak euskararekin du zerikusia. Nire bi seme-alabak euskaraz mintzatzen dira, eta nik hitz batzuk ikasi ditut, pitza saltokian lanean ari naizenean telefonoz hots egiten duten bezeroei zerbaiz ulertzeko moduan”.
- “Komeni da harrera egin dizun herri horrek daukan kulturarekin, hizkuntzarekin, bizimoduarekin... bustitzea, integratzeko gogoia baduzu behintzat”.
- “Errumaniara joaten naizenean, han emigrante sentitzen naiz. Ez zaituzte hangotar baten gisa hartzen; lan egiten duzula eta dirua duzula uste baitute, eta horrek eragin handia dauka nigan. Oso gustura bizi naiz hemen, eta ez dut uste itzuliko naizenik”.

MARIA ROSALINA (MEXIKO):

- “Agian senarra eta bion historia ez da ohikoa gaur egungo emigranteen unibertsoan. Izan ere, lan kontratu batek ekarri gintuen hona. Lanpostua proposatu zigun gure enpresak, eta abentura gisa hartu genuen honako bidea, 2014an”.
- “Guk beste emigrante askok baino zorte hobe izan dugu. Kostata, baina hainbat tramite egin eta gero, erresidentziako txartela iraunkorra lortu dugu. Orain semearekin daukagu borroka, hemen jaio

"OSO GUSTURA BIZI NAIZ HEMEN, EZ DUT USTE ITZULIKO NAIZENIK"

MARIA PANICI (ERRUMANIA)



Solasaldia, oro har, oso giro atseginean igaro zen. AIURRI

arren ez baitiote nazionalitatek eman nahi”.

- “Tijuanatik gatoz gu. Txirotasuna eta aberastasuna gainezka daukan lurraldea, baita biolentzia eta bahiketak. Haren aldean, hau paradisua da! Gure ama hona etortzen denean, haurraren atzetik ibiltzen da jolastokietan, bahituko ote duten beldur. Lasai egoteko eta bankuan esertzeko esaten diot, ikusten dituen pertsona guztiak gure bizilagunak direla, konfiantzakoak”.
- “Bizitza etxetik urrun, noski egiten dela gogorra. Familia kanpoan duzunean batez ere. Nolanahi ere, internetak asko erraztu du milaka kilometro-

tara bizi diren senitarteko eta lagunekin harremanak mantentzeko orduan”.

- “Itzultzeko batere asmorik ez daukagu. Arrazoi askorengatik, segurtasun pertsonala, ekonomikoa, haurren hezkuntza... Akaso itzuli gaitezke egunen batean, baina haurrak ondo hazi eta gero, ez lehenago”.

ANI ISCOA (HONDURAS):

- “Galiziara umeekin heldu nintzen; oso egonaldi zaila egin zitzaidan, tratatu txarrak zirela medio. Halako batean, Donostian zaintzaile-interna aritzeko aukera sortu zitzaidan, eta hona etorri nintzen”.

- “Umeak apenas ikusten ditudan, eta horrek asko atseka betzen nau. Nolanahi ere, ezin dut etsi, borrokan jarraitu behar dut; nire umeen etorkizunak aurrera egiteko motibatzen nau. Badakidalako sakrifizioak ordainean saria eskaintzen dizula”.
- “Hamar urteko nire alabak esaten dit ikastetxean ez dutela maite; lagunak eduki nahi lituzkeela baina baztertu egiten dutela. Arlo horretan are badaukagu zertan hobetua”.
- “Lo nagoenean, Hondurasen nagoela amesten dut. Baina hemengo bizimodua latza izan arren, Tegucigalpara itzultzeko asmorik ez daukat, ez

dut izuak jota bizi nahi berriro. Ez da giro Hondurasen! Europatik itzultzen den edonor sumatu bezain pronto, harengana jotzen dute, bahitu eta dirua lapurtzeko asmoz”.

INMA CIRES (ANDALUZIA):

- “Euskal Herrira 1994an heldu nintzen. Nire bikoteak bertan kuadrilla eta bizimodua egin zuen, eta niri egokitu zitzaidan lagunak eta ezagunen ingurua lantzea”.
- “Kosta egin zitzaidan erizaintzan lanpostua topatzea, baina harrezkero gauzak hobeto joan zaizkit. Goierrin erizain gisa aritu nintzenean, lanak eduki nituen kontsultara agertzen ziren heldu askori ulertzeko zer esaten zuten. Illoekin ere oztopo berbera edukitzen nuen. Bada, orduantxe erabaki nuen euskarari murgiltzeko premia nekala; eta Maizpide euskaltegia hasi nintzen. Esker onekoa da euskal hiztuna, eskertzen dizu egiten ari zaren ahalegina”.
- “Estereotipoen arloan, badauzkat kontu batzuk aipatzeko moduan. Lehenbizikoa, eguraldiarena da, eguraldi txarra alegia; horretara bai ohitu behar izan dudala, beharko ohitu! Sevillarraren azentuak ere jokoa ematen dio euskal jendeari! Euskaraz dakien andaluzar naiz askorentzat, eta titulu hori ez dakit betirako geratuko zaidan ala ez... Bestalde, hasierako urtetan batik bat, mundu guztiak, nongoa naizen oharitzen zenean, nire bizitza kontatzeko eskatzen zidan; are gehiago, batzuk nire azentua imitatzen saiatzen ziren. Amorruek ematen zidan horrek. Sikiera ondo egingo balute!”.
- “Etxetik urrun bizitzeak, distantzia geografikoa hartzeak, askotan laguntzen dizu atzean utzi dituzun gauzak, harremanak, lekuak... beste begiez ikusi ditzazun, neurrian balora ditzazun. Esate batera, Sevilla zeinen ederra den orain ari naiz ohartzen”.

"NIRE UMEEN ETORKIZUNAK AURRERA EGITEKO MOTIBATZEN NAU"

ANI ISCOA (HONDURAS)

Antolatzaileen eskertza Jon Maia bertsolariari

"Jon Maiari, herrien ospakizuna antolatzeko eskainitako laguntzagatik" esaldia zeraman plaka oparitu nahi izan zioten Hogar Extremeño eta Triana elkarteak. Zuzenean eman beharrean, Esti Mujika zinegotziari plaka emateko aukera eskaini zioten. Hein handi batean Mujikak berak aurreko urteetan egindako lanari ere aitortza egin nahi izan zioten. Solasaldia amaitzean, beraz, Esti Mujikak jaso zuen enkargua bete eta Jon Maiari oroigarritzako plaka eman zion Andoaingo bi elkarten partetik. Ezaguna da bertsolariak aniztasunarekin duen konpromisoa. Bere familia ere, bere garaian, etorkina izan baitzen.



Jon Maiak Esti Mujika zinegotziaren eskutik jaso zuen oroigarria. AIURRI

Herrien jaia ospatu zuten Nafarroa plazan

Hango eta hemengo andoaindar askoren bilgune bilakatu zen Nafarroa plaza, joan zen larunbatean. Gastronomia eta kultur jaialdia izan zen, nagusiki, jatorri ezberdineko herritarrak elkar ezagutzeko baliagarri izaten dena



Hogar Extremeñoiko eta Triana taldeko kideek postu bana ipini zuten, Nafarroa plazan. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Larunbatekoa herri eta mundu mailako aniztasunari eskainitako eguna izan zen. Eguerdian hasita jendetza batu zen Nafarroa plazan. Andaluziako eta Extre-

madurako edariez eta jakiez gozatzeko aukera izateaz gain, mundu osotik etorritako txoko ezberdinetako jakiez gozatu ahal izan zen. Maroko, Errumania, Nikaragua herrialdeen kasua

zen. Gastronomia aukera zabalaz gozatzeko aukera baliatu zuten ospakizunea hurbildutako gehienek. Goizean musika taldeak nagusitu ziren taula gainean. Eta, arratsaldean, dantza taldeak.

Mundu zabaleko jakiak eskura



Errumaniako jaki ezberdinez gozatzeko aukera izan zen. AIURRI

Errumania Andoaingo erroldaren arabera, 71 herrikide errumaniar jatorrikoak dira. Munduko zaporeak ekimenean ere parte hartze aktiboa izan dute. Larunbatean ez zuten hutsik egin.



Nikaraguako jaki ezagunak dastatzeko aukera izan zen. AIURRI

Nikaragua Amerikako herrialdea sei milioi biztanle ingurukoa da, eta Andoainen hango jatorriko ehun herritar inguru erroldatuta dago. Munduko zaporeak ekimenean parte hartutakoak dira.



AIURRI

Gazte eguna Andoainen

Ernai gazte erakundeak antolatuta, larunbatean Gazte Eguna ospatu zuten Andoainen. Goizean 11/13 sumarioan auziperatuta egon zen Jon Mindegiagak hitzaldia eskaini zuen. Entzule ugari bertaratu zen Irunberri elkartera. Ordurako jaiaren parte hartu zutenek egunari loturiko kamiseta

soinean jantzita zeramaten. 60 lagunetik gora elkartu zen Kale Nagusian egin zuten herri bazkarira. Arratsaldean, elektro txarangarekin girotuz joan zen eguna. Eta egunari amaiera emateko, kontzertua Gaztetxean. Aiurri.eus-eko Komunitatea atalean, Manterolak jaiaren kronika idatzi zuen.

EH Bildu eta Podemos alderdien agerraldia

Andoaingo Udalaren gardentasun atarian Udal ordezkari guztien ondasunak argitara ematea eskatu dute. Udal idazkaritzak hamazazpi zinegotzien Curriculum Vitae-a egiaztatu beharko lukeela erantsi dute

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Hauxe da deitzaileen arrazoi nagusia: "Agintaldi berri hone-tan, Udal Gobernuak hautetsien ondasunen aitortpenak udaleko webgunean ez argitaratzea erabaki du. Gainontzeko alderdion eman diguten azalpen bakarra 'formula berri bat bilatzen ari direla' izan da. Gogorarazi nahi dugu, 2015ean, www.andoain.eus webgunean zinegotzi guztien ondasunen aitortpenak publiko egitea aho batez onartu zela plenoan. Eta 19/2013 legea oinarritzat hartuta, udaletxeko zerbitzu juridikoek 2017ko martxoan igorritako txostenak erabaki hori indartu zuela".

Gaur gaurkoz, Andoaing.eus webgunean, 'Gardentasun ataria' izeneko atalean 2015-2019 agintaldiko ordezkarien datuak agertzen dira. Guztienak, EAJ-PNVko kideenak izan ezik. Gai honekiko jeltzaleen eragozpenak, beraz, ez dira oraingoak.

Oposizioan dauden EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiek gobernuan dauden PSE-EEri eta EAJ-PNVri eredugarri izatea eskatu diete: "Aurreko legegintzaldian ere ez ginen ados osoko bilkuraren akordioa ez betetzeko EAJ-PNVk hartutako aldebakarreko erabakia-ekin. Pausu berri hau, ordea,



Andoni Alvarez (EH Bildu) eta Tere Santana (Elkarrekin Podemos). AIURRI

larriagoa da. Orain ez baitaude oposizioan, gobernatzen baizik. Onartezina iruditzen zaigu hauteskundeetara bitarteko publikoak gobernatzeko aurkeztzen diren horiek, gizarteak eskatzen dituen gardentasun baldintzak ez onartzea".

Agerraldia amaituta, hiru eskaerako proposamena aurkeztu zuten Ataria zerbitzuan. Hauexek dira eskaerak:

1 "Udal gobernuari eskatzen diogu 2015eko apirilaren 30eko Udal batzaraldian onartutakoa betetzea, 17 kargu publi-

koen ondasunen aitortpenak www.andoain.eus gunean publiko eginez".

2 "Hau hala ez bada, gutxienez, EH Bilduko eta Podemoseko zinegotzien ondasunen aitortpenak publiko egitea".

3 "Beste instituzioetan eman diren akatsak zein iruzurak ekiditeko, Udal Gobernuari eskatzen diogu zinegotzi guztiei eska diezaiela titulazioen zein lan bizitzaren kopia bana, idazkaritzak Curriculum Vitae horiek guztiak egiaztatu ditzan".



Belarra luze samar dago Doktor Huitzi kalean. AIURRI

Azken urteotan sortutako arazoei egokitutako plegu berria

Udalak lorategien mantenimendurako zerbitzua berritu nahi du, sortu diren gabeziei erantzuna eman asmoz

Erredakzioa ANDOAIN

Lorezaintza zerbitzuaren plegua berritzeko garaian, Andoaingo Udalak azken urteotan sortu diren arazoak kontutan hartu nahi ditu. Zerbitzuen lantsailak hedabideetara bidalitako oharren arabera, "uda hezea denean, euria eta beroa konbinatzen direnean, belarra azkar hazten da denbora gutxian eta, egoera horretan, belarra aspal-dian moztu ez dela dirudi. Egoera hau azken hiru udatan errepikatu da eta horrek eragin du lorategi batzuk denbora luzean itxura utzia eta zabarra izatea: belar luzea, etzanda eta landare inbaditzaileez inguratuta".

Kontsulta fasea

Arazaari irtenbidea eman nahian, lorezaintza enpresa ezberdinekin kontsulta fasea abiarazi dute: "Kontsulta horietatik lortutako emaitza ba-

liogarria izango da zerbitzua esleitzeko prestatu behar den plegu berria idazteko. Bertan jasoko dira antzeman diren behar berriak; hala nola, belarra mozteko maiztasuna eta herriko lorategiak hobetzeko aurrera eraman behar diren ekintzak. Beraz, Udalaren helburua azken urteetako arazoak ekiditea eta lorategiak egoera onargarrian egotea da".

Apiriletik urrira bitartean, udal lorezainen lan nagusia belarra mozteak izan da. Lorategiak kokalekuaren arabera sailkatzen dira eta mozketa eremura egiten da.

HERRIGUNEKO HAINBAT EREMUTAN, DENBORA GUTXIAN AZKAR HAZTEN DA BELARRA

Epaileak erabakiko du zein zigor ipini behar dioten auto gidariari

Urriaren 3an Kaleberrian irauli zen autoaren gaineko atestatua egin du Udaltzaingoak

Erredakzioa ANDOAIN

Ostiralean beste mintzagairik ez zegoela zirudien. Ostegun gaueko gertaerak zeresan handia eman zuen. Istripua baino gehiago, ezbeharra izan zen. Zorionez, ez zen zauriturik izan. Hori bai,

gertaerak irudi ikusgarriak utzi zituen. Gaueko 21:30ak jotzeko ziren. Abiadura handiaren eraginez eta auto gidariak egin zuen mugimenduaren eraginez, ibilgailuaren kontrola galdu eta autoa iraulita geratu zen. Une

horretan –ostegun iluntzean pinto potea da Andoaingen– jendetza zebilen kalean, eta ezbeharren irudiak azkar batean zabaldu ziren. Anbulantzia eta Udaltzaingoa gerturatu ziren lehenik, eta Ertzaintza ondoren. Zauriturik ez zen izan, eta trafikoa hainbat minutuz itxita egon zen. Ibilgailua bazterrera eraman eta trafikoa berrezarri zuten. Ikusi beharko da ikerketak zein ondorio dakarren. Udaltzaingoak atestatua egin du, eta zein zigor ezarri epailearen esku egongo da.



Kaleberria 9 kalearen pare horretan gertatu zen ezbeharra.



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Heriotza eta bat-bateko informazio digitala

Urtea igaro denean, Asier Niebla Martinezen heriotzaren inguruan El Diario Vascoren edizio digitalak 2018ko urriaren 11n izan zuen jokamoldea gogora ekarri nahi dut. Ezagun den bezala, urnietar gaztea urte bereko abuztuaren 12an Donostiako jaietan neska batekin hizketan hasi eta neska haren bikotekide ohiak Niebla buruan kolpatu zuen, larriki zaurituz. Geroztik ospitalean zegoen, oso egoera larrian. Gertaerak alarma piztu zuen Gipuzkoa osoan eta, bereziki, Urnietan. Gogoangarria izan zen urte hartako Sanmielen hasieran Jokin Lizeaga pregoilariak eskaini zizkion hitz goxoak.

Urriaren 11n hil zen, arratsalde. Zer gertatu zen, ordea, egun hartan? Erredakzioan Nieblaren azken orduak nola bizi izan genituen azalduko dut, kronologikoki:

09:25 Goizetik zabaldu zen Asier Niebla Martinezen heriotza, whatsapp bidez. Berbidalitako mezua jaso genuen 09:25etan: *“Acaba de fallecer Axier Niebla”*. Whatsapp ahoz ahokoaren pareko bilakatu den garaiotan, zuhur jokatzearabaki genuen.

Iturri fidagarriaren bila abiatu ginen, eta geuk behintzat azkar batean

aurkitu genuen. Eman ziguten informazioarekin, whatsappez jasotako mezua albiste ez bilakatzea erabaki genuen.

09:55 Ezetz, ez zela hil zioen bigarren mezua jaso genuen whatsapp bidez. Gaizki ulertzeren bat izan zela dena.

Hortxe geratu zen afera, harik eta arratsaldean etxetik bulegorako bidean eskuko telefonora mezu berriak iritsi zitzaizkidan arte.

16:36 Lankide baten whatsapp, DVren edizio digitalean Asier Nieblaren heriotzaren albistearen berri ematen zuen esteka edo linkarekin. Hauxe zen goiburua: *“Fallece el joven de Urnieta....”*.

16:37 Euskal Herri mailako euskal hedabide bateko kazetariaren dei galdua. Ahots mezua utzi zidan, DVren edizio digitalak argitaratu zuen albistearen konfirmatzerik ba ote genuen galdezka. Era berean, heriotzaren albistearen argitaratu behar ote genuen jakin nahi zuen.

ASIER NIEBLAREN KASUAK ALARMA PIZTU ZUEN GIPUZKOA OSOAN, BEREZIKI URNIETAN

Lankideari eta ahots mezua utzi zidan kazetariari adierazi nien ez genuela heriotzaren konfirmaziorik jaso. Eta, beraz, ez genuela une horretan ezer argitaratuko. Heriotzaren albistearen argitaratu edo ez argitaratu, eztabaidan aritu nintzen lankidearekin:

“Baina DVk publikatu dik!”.

“Eta agian goizeko lehen orduko whatsapparekin gertatu bezala oinarririk gabeko mezua jaso ditek. Guk ez diagu konfirmaziorik jaso, beraz itxaron egingo nikek”.

Tarte horretan gure informazio iturrira jo genuen berriro. Heriotzaren berririk ez, ordu horretan.

Bitartean, horrelakoetan gertatu ohi denez, DV egunkariko edizio digitalean albiste irakurriena *“Fallece el joven de Urnieta....”* izenburukoa zen. Gertaeraren inguruan lanean jarraitu nuen bulegoan, eta egiaztatu nezakeen informazio osagarriaren bila aritu nintzen sare sozial eta ehorztetxe ezberdinetan. Heriotzaren arrasto fidagarririk ez nuen topatu.

HANKA SARTZE HANDIA DA GERTATU EZ DEN HERIOTZAREN ALBISTEA ZABALTZEA

17:49 Pantailaren aurrean aho bete hortz geratu nintzen. DVren edizio digitalak heriotza iragartzen zuen albisteari izenburua aldatu zion: *“En estado muy grave el joven de Urnieta...”*.

Nirekin harremanetan jarri ziren kazetariekin partekatu nuen pantallazoa. *“A ze hankasartzea!”*, horixe gu guztion erreakzioa.

Ez dakit DVk zein informazio iturri erabili zituen urriaren 11n, baina hanka sartze handia da gertatu ez den heriotzaren albistearen zabaltzea. Ordubete luze egon ziren gertatu ez zen ezbeharra iragarritz. Atzera egin, *“Hil egin da”* izenburua kendu eta *“Oso egoera larrian”* ipini zuten goiburuan.

Deigarria zen, halere, albistearen URLa edo iturburua aldatu gabe jarraitzen zuela. Une horietan, oso itsusi geratzen zen albistegi digitalaren pantaila edota talde bereko hedabidearen timeline-a irakurtzea. Larri zegoela zioten, eta hari loturiko estekaren edo linkaren izenburua heriotzarena zen.

Buruan bi ideia nituen bueltan, une horietan:

- Hilik eman zuten ordubete luze horretan, edizio digitalaren albiste irakurriena izanik, zenbat

pertsonengana iritsiko ote zen ‘albiste’? Nieblaren etxe-koenganaino akaso? Doluminak jaso zituzten alde aurretik? Pentsatze hutsak tristezia handia eragiten dit.

- Hil dela iragartzetik oso larri dagoela zuzentzera jarrita, El Diario Vasco egunkariaren edizio digitalak albistearen URLa edo iturburua ere aldatu beharko luke.

18:32 Gure informazio iturriak *“Asier hil da”* goiburu zuen mezua helarazi zigun. Bulegoan nengoen, eta minutu gutxira albistearen aiurri.eus webgunean argitaratu genuen. Sareetan zabaldu genuen, ondoren.

Minutu gutxira, El Diario Vasconko edizio digitalak lerroburua aldatu zuen berriro. Oraingoan, benetako albistearen berri emateko: *“En estado muy grave el joven de Urnieta...”* kendu, eta gaztea hil aurreko izenburua ipini zuten berriro: *“Fallece el joven de Urnieta...”*.

Oso sentsazio arraroak nituela, bulegotik alde egin nuen 2018ko urriaren 11ko iluntze hartan. Hankasartzeak guztiok egiten ditugu, baina hankasartze guztiak ez dira maila berean ipini behar. Pertsona baten heriotza tarteko dagoen albisteen kasuan, esaterako.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

POSTONTZIA

JULEN LIZASO ALDALUR HERNANI

Aldaketaren alde, apustu

Dieta eta Osasunari buruzko Europako Ikerketa Prospektiboan (EPIC), Eusko Jaurlaritzak bigarren faserako gonbidapena egin du: “Bisfenol-Arekiko esposizioaren eraginak osasunean”. EPICek orain proposatzen du ebaluatzeko zein erlazio dagoen konposatu kimiko baten (bisfenol-A) eta minbizia edo Gaixotasun Koronario Iskemikoa garatzeko arriskuaren artean.

Orain gutxi artikulua batean irakurri dut: «Espainian, nahiz eta botilako litro urak iturrikoak baino 400 eta 1.000 aldiz gehiago balio, Europako laugarren eta munduko seigarren herrialdea gara, ur “hila” kontsumitzen. Urteko eta pertsonako 140 litro horiek eragiten dute segunduro 1.500 plastikoko botila zaborretara edo landara botatzea, eduki toxikoekin; bisfenol A (BPA) eta antimonioa, kasu». EAEn, ahartzeko ura edangarria egiten dute fluorurarekin. Gainontzeko tokietan sodio hipokloritoarekin (lixiba), Cordoban eta Andorra bezalako gertuko lurraldeetan izan ezik; hauetan, kloro dioxidoarekin (sodio kloritoa-MMS), ura edanagarri egiteko disolbagarriagoa eta patogenoak hautatzeko eraginkorragoa dena, eta dosi txikiagoak behar dituzenez, gastuak, zaporea eta osasunean onurak hobetzen dituen. Biozida ez kaltegarri hori indartsuagoa da, trihalometano (THM) beldurgarriak eta fenolak ezabatzea bermatzen baitu. Horregatik erabiltzen da ospitaleetako gela eta tresneria esterilizatzeko.

2008an gobernu britainiarrak iturriko uraren kalitatea hobetu zuen, eta era berean, debekatu egin zuen bulego ofizialetan, jaialdietan eta ekitaldi publikoetan plastikozko botilako ura edatea, kaltegarria, inmorala eta ez solidarioa irizten diolako.

2013an Frantziak debekatu egin zuen Bisefenol-A plastikozko ur botiletan, petroliotik eratorritako substantzia oso toxikoa delako.

Aurrekari horiekin, Eusko Jaurlaritzak eztabaida publikoa ireki behar luke, ahartzeko plastikozko ur botilak gutxitzearen alde, eta aurretik, bermatu, etxe eta iturri publikoetan gure uraren zaporea eta osasungarritasuna, gaur egun fluorazioarekin ez baitago bermatuta. Edangarri egiteaz gain, osasungarri eta bizi egitea izan behar litzake datorren hamarkadarako bere apustua.

Energia aurreztu eta gutxitu eta Zero Zabor filosofiarekin bat egiten duen ekonomia zirkularraren aldeko zaborren tratamenduari lotutako irizpideengatik ezin dugu atzeratzen utzi plastikoa eta osasunari lotutako iturriko uraren arazoa.

“Eko etorkizuna: Plastikoa EZ” Mundu mailako mugarri litzateke, Hernanikoa bezalako Euskal Herriko zenbait udaletxetan ingurumenaren aldeko praktika onen alde, hondakinen gaiari lotuta... Zuzenean eragiten digu.



ZABALIK

XABIER LASA KAZETARIA

Biolentziaren biktimen sentimenduak

Nabarmentzen ari zaigu biolentziak eragindako biktimen sentimendu eta sufrimendua interpretatzen dizkigun kasta: klase politikoa, kazetariak, iritzi emailak.... Garbi asko zehazten digute ETak eragindako biktimei nork eta zerk eragiten dien umiliazioa, mina, iraina... Arrazoi humanitarioak, etikoak eta moralak aipatzen dira; iraganarekiko ikuspegi kritiko izan behar dela eranstearrekin batera.

Zilegitzat eta onargarritzat jo daiteke diskurtso hori, baina sinesgarritasuna galtzen hasten da frankismoak edo estatuak eragindako biktimak interpretazio horretatik salbuesten dituzten unetik. “Egia, justizia eta erreparazioa”ren aplikazioan bigarren edo hirugarren mailakotzat jotzeaz gain, kasik-kasik biktima gisa dauzkaten sentimenduak ukatu egiten zaizkie.

Garai ezberdineko biktimekin irizpide berdinak erabiliko balituzte, galtza bete lan edukiko lukete. Eta ez naiz soilik VOX, PP, Ciudadanoseko kideen adierazpenengatik ari.

Ez dago soberan gogoraztea frankistek eragindako milaka eta milaka biktimek egia, justizia eta errepazioa ezagutu gabe segitzen dutela, demokraziak 40 urtik gorako ibilbidea izan arren. 1936ko

kolpe militarren eta ondorengo diktaduraren sustatzaileei demokrataren txaketa oparitu eta alfonbra gorria ipini zitzaion, gerran eta gerra ostean lortutako pribilegioekin gozatzen segi zezaten: Fraga, Martin Villa, Juan Carlos Borboia....

Era horretan, Espainian, edukiontzia bat erre duen gazte batek frankista hiltzaile guztiak batuta baino kartzela zigor handiagoa kunplitzea gauzarik normalena bihurtu da. “Sentimenduen aditu” horiek gogoratzen digute gizarte osasuntsu batek aurrera egiteko premiazkoa duela iraganeko orriak irakurtzea. Eta arrazoiak dute. Baina ahazten zaie, trantsizioan, justu kontrakoa egin zela. Orduko erabaki haren ondorioak jasaten segitzen dugu, egun. Amnesia historikoa izan zen aplikatu zuten botika, bide bazterrean utziz Errepublikan defendatzeagatik akabatu zituzten milaka herritarren gorpuak. Egunotan, VOXeko Smithek 39an frankistek desagerrarazi zituzten hamairu emakumeen “13 arrosak” – kontra egindako adierazpenak nabarmendu dira.

Baina zer esan Pedro Sanchezek berehala eduki duen erreakzioaz? Espainiako sozialistek eta demokratek emakume horiek beti eduki

omen dituzte oroitzapenean, hala dio. Gertakizun historikoei zer adierazten digute, baina? Roberto Conesak salatu zituela emakumeak; diktaduran polizia torturatzaile famatua izan zela; eta geroztik, PP-PSOE bipartidismoak goi karguak eta kondekorazioak eskainiz saritu zituzten frankista horietako bat izan zela (Luzea da sarituen zerrenda: Billy el Niño, Saenz de Santamaria, Ballesteros...).

Eta zer esan, esate batera, Francoren gorpuzkinen kontura Sanchez bera burutzen ari den jokaldi politiko biribilaz? Francoren irudi sinbolikoak emozioak zirikatzen dituela Espainiako gizartean, trebetasuna aitortu behar zaio Sanchezen estrategia diseinatzaileari. Espainiako soziologia frankista pizten baita; eta eraginez, pizte horrek soziologia antifrankista ere mobilizatzen baitu boto “utila”ren alde. Eta paraleloki, memoria historikoren berreskurapenaren aldeko domina janzen du.

Bide bazterretan edo “Ererien haranean” segitzen duten milaka biktimek, ba ote dute arrazoirik umiliatuta, irainduta, minduta... sentitzeko eta biktimen sentimenduetan “aditu” diren arreta pizteko?



andoaINDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aiurri eskuragarri:
Ebeze etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ALJATUAK:** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA **Urnietako Udala**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Eusko Jaurlaritzaren Gobernua **Gipuzkoako Foru Aldundia**

ZIURTAGIRIA: **BABESLEAK:** **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.



Gaueko hamaikak pasata hasi zen antzerki emanaldia. Ikusleek euripean jarraitu zuten obra. AIURRI

Xoxokako jaiak, asteburuan

Astearte gauean, auzokideen antzezlanarekin, amaiara eman zioten jaien lehen txanpari. Ostiralean jarraipena izango du jaiak, kirol desafio ezberdinekin eta beste hamaika hitzordu gehiagorekin. Igande arratsaldean sagardo dastaketa izango da

Jon Ander Ubeda URNIETA

Umore sanoz, beti ere, antzezleek auzoan ireki duten golf instalakuntzaren inguruko parodia egin zuten. Ikuslegoak ikusmin handiz jarraitu zuen antzezlanari, irri egiteko prest.

Irekiera ekitaldietan ohiko diren rolak bete zituzten: Alkattea, haren laguntzailea, ugazabak, langilea, golf ikastaroko ikasleak... Gauerdia baino lehen amaitu zen, antzezlanari, azken hamarkadatan etenik gabe erre-

pikatzen den usadioari jarraipena emanez.

Jaiak jarraipena izango du ostiralean, auzoko gazteen arteko sega desafioarekin hasita. Igandera bitarte hitzordu ugari izango da.

Herri kirolekin hasi ziren jaiak

Xoxokako jaiak herri kirol erakustaldiarekin abiatu ziren. Telleria, Urra eta Mugertza anaiak proba ezberdinak egiten jarri zituzten. Harria altxaz eta egurra moztuz ibili ziren, nagusiki. Bukaera aldera, antolatzaileek Ugaitz Mugertza-Beñat Telleria eta Aratz Mugertza-Urra aurrez aurre jarri zituzten. Oso alde gutxiagatik Aratz Mugertza-Urra bikotea nagusitu zen.



EGITARAUA



Sebastian Lizaso. KMON



Oihana Iguaran. AIURRI

URRIAK 11

OSTIRALA

18:00 Auzoko gazteak elkarren aurka segan ariko dira.

20:30 Bertso afaria: Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso.

01:00 Erromeria: Emengattun.

URRIAK 12

LARUNBATA

10:30 Zaldi lasterketaren aurkezpena Xoxokako plazan. 11:00tan hasiko da lasterketa, Beatsaburutik.

11:30 Hamaiketakoa eskolan.

11:30 Puzgarriak haurrentzat.

12:30 Segalari eta biltzaileen giza proba: Julen Gabirondoren sega taldea, Jon Otegiren taldearen aurka ariko dira. 12 minutuko 2 txanda.

15:00 Mus azkarra eskolan. Izen ematearen hasiera. 16:00tan hasiko da txapelketa.

16:00 Puzgarriak haurrentzat.

17:00 Gorriti eta bere animaliak. Jarraian txokolatea izango da haur guztientzat.

20:30 Betizu jatea plazan.

01:00 Gaupasa: Gabezin taldea.

03:00 DJ Inbutei disko jartzailea.

URRIAK 13

IGANDEA

12:30 Meza. Ondoren, Egapeko dantzariak.

17:30 Herri kirol lehiaketa auzoko gazteen artean.

18:00 Sagardo dastaketa plazan: Setien, Eula, Bereziartua, Lizeaga eta Oiarbide.

20:30 Jaien amaiara.



Sagardo dastaketa, ohi bezala, igande arratsaldean izango da. AIURRI

Zaldi lasterketa, larunbatean

Beatsaburutik hasi eta Xoxokako plazaraino doan errepide zatian, hamalau zaldiren arteko lasterketa antolatu dute. Goizeko 10:30ean partaideen aurkezpena egingo dute Xoxokako plazan, eta lasterketa 11:00tan abiatuko da

Jon Ander Ubeda URNIETA

Maite Amezketa atarrabiarra da. Duela gutxi, Ander Iruretagoiena bikotearekin batera, Xoxokara bizitzera etorri ziren. Euxebio zaldiaren jabe dira, eta zaldiekiko zaletasuna Urnietan garatzen jarraitu nahi dute. Ander eta Euxebio izango dira larunbateko lasterketako partaideetakoak.

Jai Batzordearekin batera, Maite eta Ander dira lasterketaren antolatzaileak. Larunbat goizean, zaldi guztiek batera, errepidean gora egingo dute lasterketa. Hamalau partaide ziurtatuta dituzte, eta Euskal Herri osotik etorriko direla esan daiteke: Zumaiatik, Oiartzundik, Berriatuatik, Zallatik... Eskualdera begira jarrita, lasartearrak eta urnietarrak ere partaideen artean izango dira. Zaldien munduan murgilduta daudenentzat ospakizun modukoa da, eta antolatzaileek ikuslegoari hurbiltzeko deia luzatu nahi diete.



Ander Iruretagoiena auzotarra, Euxebio zaldiarekin. AMEZKETA

Ikusgarria izango dela ziurtatu dute. Hasteko eta behin, 10:30ean partaideen aurkezpena egingo dute plazan. Eta, 11:00tan, zaldi lasterketari ekingo diote. Zelaitik abiatzekoak ziren, baina azkenean Beatsaburutik irtetea erabaki dute.

Denera, 2,5 kilometroko lasterketa izango da. Partaideentzat ospakizun modukoa: "Disfrutatzeko eguna da. Giro ederra dago, gainera, partaideen artean. Lehia sanoa dago. Zaldien mundua ezezaguna zaionari hurbiltzeko esango nioke. Merezi du".



Aitor Aldunberri, Beñat Goenaga, Manex Otegi eta Beñat Arruti. AIURRI

Auzokideen arteko sega desafioa, ostiral arratsaldean

Urnietako lau gazteren arteko desafioarekin abiatuko dira asteburuko ospakizunak

Erredakzioa URNIETA

Aitor Aldunberri (20 urte, Pagoa baserrikoa) eta Beñat Goenaga (21 urte, Oiamar baserrikoa) Goiburu auzokoak, alde batetik, eta Manex Otegi (23 urte, Oztaran auzoko Argarate baserrikoa) eta Beñat Arruti (28 urte, Lategi auzoko Lobera baserrikoa), beste aldetik, segan arituko dira. Ostiral arratsaldean hasiko da

desafioa, 18:00tan hasita. 700 metroko belar saila ebaki behako dituzte, txanda librean.

Apustua izanik, ikusmina piztu da. Herrikide diren lau gazteren artean afaria dago jokoan. Asteartean antzezle moduan aritu eta gero, jendaurrean beselako moldean ibiliko dira ostiralean. Golf makilarekin baina hobeto moldatuko al dira segan?



Julen Gabirondoren sega taldea. XOXOKA



Jon Otegiren sega taldea. XOXOKA

Mila euro jokoan, segalarien eta biltzaileen giza proban

Larunbat eguerdian, 12:30ean hasita, giza proba ikusgarria izango da Xoxokan. 900 kiloko harriarekin, hamabi minutuko bi txanda bete beharko ditu talde bakoitzak. Ziur ikusmin handia sortuko dela. Julen Gabirondoren taldean hauexek izango dira taldeko partaideak: Beñat Telleria, Oier Urkola, Jon Etxeberria, Iñigo Peñagarikano, Iker Manterola (ordezkoa), Urtzi

Irazusta, Urtzi Telleria, Gorka Etxeberria (ordezkoa), Imanol Etxeberria (erakustaille) eta Suharri Irazustabarrena. Jon Otegirekin, berriz: Unai Urruzola, Zigor Salaberria, Joxe Luix Garaia (erakustaille), Suharri Rodriguez, Iraitz Arruti Mikel Arsuaga eta Unai Lasarte. Argazkian falta den taldekidea Gorka Susperregi da.



Aurrera Gure Ametsa taldeko kideek Jalgi plazara ikuskizuna antolatu zuten. Amaieran, hainbat tokietatik etorritako gonbidatuekin, musikari eta dantzarekin argazkia atera zuten. AIURRI

Baserritarren eguna Urnietan

Arrosarioko Amaren eguna tradizio handikoa da Urnietan. Urriko lehen igandean izan ohi da, eta ospakizun horrekin amaiera ematen diete Sanmielei. Jalgi Plazara dantza emanaldia, txekor jatea eta Xabier Solanoren emanaldia nabarmendu ziren

Erredakzioa URNIETA


Solanok orain hilabete batzuk zendutako Alazne Manerori kantu bat eskaini zion. Egunean zehar ere maiz hartu zuten go-goan Manero, Aurrera Gure Ametsa taldeko eragileetakoa

baitzen. Biziki maite zuen euskal folklorea, eta hura zabaltzeko kementsu jardun zuen beti. Dantza taldearen hogeigarren urteurrenako ospakizunek jarraipena izango dute, hurrengo asteetan. Maneroren oroimenez-

ko kontzertua eta musika-tresnen erakusketa antolatuko dituzte, esaterako. Goizean, berrikuntza modura, dantza talde bereko Olatz Gorroño, Glenda Catalina eta Garazi Ramirezek ezpata dantza eskaini zuten elizan.



Kalejira egin zuten, jai giroan. AIURRI



Duran eta Salas. AIURRI

3x3 futbol txapelketa Burnibide parkean, Super Hren eskutik

Urnietako elkarteak haur minbiziari buruzko sentsibilizazio lanean darrai, ekimen ezberdinen bitartez

Erredakzioa ANDOAIN

Larunbatean dozenaka haur eta guraso hurbildu ziren Burnibide parkera. Almu Salasek jaia- ren jatorria azaldu zion Aiurri- ri: "Super H festa eta gero, Mikel Duran gurekin harremanetan

jarri zen eta futbol txapelketa martxan jartzeko proposamena luzatu zigun". Duran bera poza- rren zegoen: "Pozik gaude giro ederra sortzen ari delako. Hel- burua kirola eginez ondo pasa- tzea da, eta lortzen ari gara".



3x3 futbol txapelketa Burnibide parkean. AIURRI



Igandeko herri kirol erakustaldia egin zuten. Adinez, alde handia daukaten kirolariek elkarrekin jardun zuten. AIURRI



Batzokiak munduko ardoen dastaketa antolatu zuen. AIURRI



Arrosarioko Amaren ospakizuna, tradizio handikoa. AIURRI



Joseba Arabaolazaren ibilgailuak ikusmin handia piztu zuen. AIURRI



Bolatokian erakustaldia egin zuten. AIURRI



Solano anaiak elkarrekin aritu ziren, zuzenean. AIURRI

Txekor jate solidarioa

Eguraldi txarra ez zen oztopo izan, eta beste behin ere txekor jatea arrakastatsua izan zen. Sanmieletan uda giroko eguraldia izan da, baina ezin beti eguraldi ona izan eta joan zen igande arratsaldean hobe zen babesean ibiltzea. Hori dela eta, Udalak arratsaldeko hitzorduak Egape ikastolara eraman zituen. Herri kirol erakustaldia bertako frontoi txikiaren inguruetan egin zuten. Ondorengo ekitaldiak, berriz, jolastoki estalian. Txekor jateak izatera solidarioa izan ohi du eta aurtengo onuraduna Pausoka elkarteak izan da. Pozarren izango ziren, jende asko hurbildu baitzen. Eguna borobiltzeko, Aurrera Gure Ametsa dantza taldeak Xabier Solanoren emanaldia antolatu zuen. Solanok kantuan dantzan jarri zuen ikuslegoa, maila bikaineko musikariez lagunduta. Kristina arreba alboan izan zuen, zeina Udal Musika eskolako irakaslea den. Eta solanotarrekin batera DZ Esne Beltzako disko jartzailea eta Arkaitz Miner musikaria.



Dozenaka lagun elkartu ziren Egape ikastolako jolastoki estalian. AIURRI



Txekor jatean bildutako dirua Pausoka elkartearentzat izan zen. AIURRI

"Gorputz osoa lantzeko jarduera egokia da"

MEHRDAD EBADI NORDIC WALKING KIROL JARDUERAREN SUSTATZAILEA

NORDIC WALKING Duela hiru urte, Finlandian ohikoa den kirol jarduera probatu zuen. Egun hartatik aurrera, interesa piztu eta praktikatzeari ekin zion

Mikel Arberas ANDOAIN

Zertan oinarritzen da Nordic Walking izeneko kirola?

Nordic Walking jarduera makilekin oinez ibiltzean oinarritzen da. Hala ere, Nordic Walking eta Trekking-a bereiztu behar dira. Bi jardueren oinarria bera da, baina trekking-ean esku-makilak oinez laguntzeko soilik erabiltzen dira. Nordic jardueraren makilak, berriz, bultzada makilak dira. Esfortzu guztia hankek egin beharrean, gorputz guztia baliatzean datza. Hanken sufrimendua gutxitu egiten da, gorputz osoa baliatuz gero.

Noiz hasi zinen kirol jarduera hau egiten?

Duela hiru urte inguru hasi nintzen, irakasle izan nuen Juanmarekin. Gaur egun, beste kide batzuekin jarduten dut, esaterako, Xabier Madinarekin.

Nola izan zenuen kirol honen berri?

Lehenagotik zerbait entzunda nuen. Egun batean, Nordic Walking-ari buruzko iragarki bat ikusi nuen Andoainean eta probatzea erabaki nuen; azkenean, ikastaroa burutu nuen. Azken finean, oinezko jardueraren beste adar bat da.

Edonork egin dezake oinezko kirol jarduera hori?

Oinez ibiltzeko gai diren guztiek praktikatu dezakete, hala ere, kirola egiteko garrantzitsua da nola egin ikastea.

Nordic Walking-a Finlandian
hasi zen; eski nordikoa egiten
dutenek entrenatzeko asmatu
zuten modalitate hau, udaran
elurra ez zegoelako adibidez.
Hau da, udan entrenatzen
jarraitzeko teknika bat landu
nahi izan zuten.

Aurrerago, fisioterapeuten, entrenatzaileen eta Alemaniako Mainz unibertsitatearen laguntzarekin, praktika aztertu eta kirol ofialtzat onartu zuten. Kirol erraza dirudien arren, garrantzitsua da entrenatzaile-

learekin edo dakien norbaitekin
hastea.

Nordic Walking-ak zer eskaintzen dituzte kirolariari?

Ondo eginez gero, gorputzeko muskuluen %90 erabiltzen da, oso portzentaiata altua da hori. Oinez jarduten duenak, soilik gerretik beherako zatia lantzen du, baina Nordic Walking-a bere osotasunean egiten duenak ia gorputz guztia erabiltzen du.

Gaixotasunak edo lesioak di-
 tuztenentzat ere oso onuragarria
 izan daiteke. Medikuek asko
 gomendatzen dute.

Non ibiltzen zara?

Andoain zoragarria da kirol jarduerak egiteko; Trentxikin, bidegorrietan, mendian eta beste zenbait lekuetan.

Pirinioetan, elurretan eta edonon egiteko aukera ematen du. Jarduera hau urte osoan zehar egin daiteke, urtaro guztietan, klima hotz eta beroetan. Gainera, ekonomikoa da: Gogoia, oinetakoak eta makilak besterik ez dira behar.

Zein da Nordic Walking-aren oraina eta etorkizuna?

Oso ondo ikusten dut. Finlandian sortu zen eta, dagoeneko, milioi eta erdi dira Laponian kirolaren jarraitzaileak direnak.

Espainiar Estatuan duela bi
 urte hasi zen ezaguna egiten;
 Euskal Herrian, berriz, duela
 gutxi arte ia ezezaguna zen.

Eusko Jaurlaritzan pasa den otsailean eztabaida gaia izan zen. eta azkenerako Nordic Walking-a eta kirol ofizialtzat onartu zen. Horrezkero, ikastaroak eta txapelketak egiten hasi dira zenbait lekutan.

Nola konbentzituko zenuke jendea kirol jarduera berrian trebatzen hasteko?

Kirol edo diziplina ezberdinak egiten dituztenentzako onuragarria izan daiteke oinezko kirol jarduera berria praktikan jartzea; hau da, beste kiroletarako lanketa osagarri izan daiteke.

Baita gorputz osoa lantzeko
jarduera egokia ere.



Mehrdad Ebadi andoaindarra. AIURRI

"GAIXOTASUNAK EDO LESIOAK DITUZTENENTZAT ONURAGARRIA IZAN DAITEKE"

**"ESFORTZU GUZTIA
HANKEKIN EGIN
BEHARREAN,
GORPUTZ OSOA
BALIATZEN DA"**

Lankideen arteko desafioa

Ruben Medina eta Ekain Gorrotxategi andoaindarrak lankide dira, eta hainbat lankideren laguntzaz, joan zen larunbatean apustua egin zuten. Lana honakoa zen: Ea nor iritsi lehenago plazara, Adarramendira igo eta gero.

Medina mendi bizikletaz abiatu zen, eta Gorrotxategi lasterka. Denbora partzialak Adarran:

1. Ekain Gorrotxategi, korrika:
1:01:01.

2. Ruben Medina, bizikletan:
1:13:51.

Denbora totala, Goikoplazan:
1. Ruben Medina, bizikletan:
1:36:40.

2. Ekain Gorrotxategi, korrika:
1:40:01.



2020an ere txapelketa antolatzeke gogoz daude

PILOTA Xoxokako Jai Batzordeak auzoko frontoi txikian eskuz banako lehen pilota txapelketa antolatu du. Parte hartze handia eta ikusleen aldetik sortu den ikusmina ikusia, datorren urtean antolatzeke gogoz daude. Neskak ere animatzeko deia luzatu dute



Larunbat arratsaldeko protagonista nagusiak, antolatzaileekin batera. XOXOKAKO JAI BATZORDEA

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Festa Batzordeak oso balorazio positiboa egin du. Parte hartzea uste baino handiagoa izan da eta giro aparta sortu da Xoxokako frontoiaren inguruan. Datorren urtera begira, berriz ere antolatzeke gogoz daude: "Hori bai, eskakizun txiki batekin: ia neskak ere animatzen diren! Xoxokan mutil zein neskentzat baitago kabida. Festa Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten pilotari guztiei eta baita bertaratu den ikusle-goari ere".

Finala:
22 Julen Loidi
14 Josu Mujika
Gaztetxoak:
22 Aimar Urria
21 Emaiz Artola

3-4 postuak:
22 Erlaitz Arrieta
14 Suharri Irazustabarrena
Gaztetxoak:
22 Oier Goenaga
6 Mattin Usarralde



Helduen finalean tanto bakoitza pilotakada askorekin osatu zen. XOXOKAKO J.B.



Gaztetxoan mailan emozioa azkenera arte luzatu zen. XOXOKAKO JAI BATZORDEA

KARTELDEGIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA	
Euskalduna-Ordizia	2-3

SAILKAPENA

1	Urola	9 puntu
2	Anaitasuna	7 puntu
4	Euskalduna	7 puntu

NESKAK, O. ERREGIONALA

Urnieta-Tolosa	0-2
----------------	-----

SAILKAPENA

1	Tolosa	9 puntu
10	Urnieta	1 puntu

ERREGIONAL PREFERENTE

Roteta-Urnieta	3-2
----------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

11:45 Urnieta-Deusto Donostia / Ig, 13

SAILKAPENA

1	Vasconia	9 puntu
14	Urnieta	4 puntu

LEHEN ERREGIONAL MAILA

SAILKAPENA

1	Anaitasuna	10 puntu
4	Euskalduna	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Euskalduna-Anaitasuna / Lar, 12

PREFERENTE NESKAK

SAILKAPENA

1	Añorga	9 puntu
2	Euskalduna	6 puntu

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

Kostkas-Euskalduna	0-0
--------------------	-----

SAILKAPENA

1	Euskalduna	10 puntu
2	Touring	9 puntu

JUBENILEN LEHEN MAILA

Urnieta-Hernani	3-2
Euskalduna-Ostadar	3-0

SAILKAPENA

1	Urnieta	9 puntu
2	Danena	9 puntu
6	Euskalduna	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:30 Urnieta - Segura Goierri / Lar, 12

KADETE, A MAILA

Lengokoak-Euskalduna	1-3
Billabona-Urnieta	1-1

SAILKAPENA

1	Euskalduna	12 puntu
2	Lengokoak	9 puntu
5	Urnieta	1 puntu

KADETE, B MAILA

Urnieta-Amara Berri	7-1
Euskalduna-Santo Tomas Lizeoa	0-5

SAILKAPENA

1	Santo Tomas Lizeoa	12 puntu
5	Urnieta	3 puntu
6	Euskalduna	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

10:00 Urnieta-Usurbil / Ig, 13

KADETE NESKAK

Astigarraga-Euskalduna	2-0
Urnieta-Tolosa	0-9

SAILKAPENA

5	Euskalduna	4 puntu
8	Urnieta	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30 Euskalduna-Danena / Lar, 12

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK

Urnieta-Txikipolit	25-27
--------------------	-------

SAILKAPENA

1	Basauri	6 puntu
12	Urnieta	0 puntu

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK

Egia-Leizaran	27-29
---------------	-------

SAILKAPENA

1	Txingudi	6 puntu
3	Leizaran	4 puntu

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK

Hettich-Urnieta	24-29
Donibane-Leizaran	32-39

SAILKAPENA

1	Urnieta	6 puntu
4	Leizaran	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

Leizaran-Egia / Urriak 19-20

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK

Urnieta-Astigarraga	22-13
Leizaran-Bera Bera	24-16

SAILKAPENA

1	Eibar	6 puntu
1	Leizaran	6 puntu
2	Urnieta	4 puntu

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK

Leizaran-Bidebieta Bera Bera	31-24
Egia-Urnieta	35-36
Leizaran Horia-Ormaiztegi	17-23

SAILKAPENA

1	Leizaran	6 puntu
3	Urnieta	4 puntu
7	Leizaran Horia	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

Urnieta-Amenabar / Urriak 19-20

GIPUZKOA, KADETE NESKAK

Leizaran-Eibar	18-24
Urnieta-Orio	10-22
Aiala-Leizaran Horia	24-25
Urnieta-Ormaiztegi	24-25

SAILKAPENA

1	Urnieta Iñaki Mecanizados	2 puntu
4	Leizaran	2 puntu
4	Leizaran Horia	2 puntu
5	Urnieta	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

Leizaran Horia-Urnieta / Urriak 19-20

ARETO FUTBOLA

LIGA, 2. JARDUNALDIA

Euskalduna-Mondrate	5-0
---------------------	-----

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 10

ANDOAIN Erakusketa

"Eremuak-Harriak", erakusketa martxan dago.

Erakusketa gela. Bastero.

ANDOAIN Ikastaroa

Euskal dantzak, Urkiren eskutik. Izena emateko azken eguna urriaren 10a izango da. Asteartero elkartuko dira, urriaren 15ean hasi eta datorren maiatzaren 26ra arte. Bi ordutegi ezberdin eskainiko dituzte:

19:00 Oinarrizko maila.

20:00 Maila aurreratua.

Asteartero, Olagainezko egoitzan.

ANDOAIN Lehiaketa

2020ko Udal egutegia osatzeko argazki lehiaketa martxan dago. Parte hartzeko aukera dago, datorren azaroaren 4ra bitarte. 100 euroko 12 sari banatuko dituzte.

Informazioa: Udal Artxiboa.

ANDOAIN Taupadak

"Gure ondoezak berrikusten" izeneko ikastaroaren hasiera, abenduaren 19ra bitarte. Ostegunero elkartuko dira, 18:30etik 20:30era. Antolatzailea Udaleko Berdintasun saila da.

Informazioa: Urigain etxea.

OSTIRALA 11

URNIETA Ipuin kontaketa

Urritik abendura bitarte, hilabete bakoitzean bi saio eskainiko dituzte. Lehena, ostiral honetan Marisa Taberneroren eskutik.

17:30, Ludoteka.

URNIETA Xoxokako jaiak

17:00 Gazteak elkarren aurka segan.
20:30 Bertso afaria Xoxokako plazan: Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso.

01:00 Emengattun, erromeria goizalderarte.

Arratsaldetik goizaldera arte.

ANDOAIN Deialdia

Azaroaren 28an "Rikardo Arregi irakurtzen, 50 urte ondoren" irakurtaldi kolektiboa egingo dute, Udalaren ekimenez. 225 lagun behar dituzte irakurtaldian parte hartzeko. *Izena emateko azken eguna.*



Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Oihana Maritorea eta Leire Ruiz. TTANTTAKA

URNIETA "Utzi mezua seinalearen ostean" antzeziana

Utzi mezua seinalearen ondoren lau ahotseko istorioa da. Bizi dituzten arazoei aurrez aurre ezin heldu dabiltzan lau emakumeren ahotsak dira, eta nahiago izango dute gertatzen zaien hori erantzungailu automatiko bati aitortu. Bernuesen

zuzendaritzapean, "maitasunari, bakardadeari eta mugikorren garaietako komunikazioari eskainitako begirada adimentsua, zirragarria eta umorez bete da". *19:00, Sarobe. 5 euro, euskaraz. Urriak 13, igandea.*

LARUNBATA 12

URNIETA Xoxokako jaiak

10:30 Zaldi karreraren aurkezpena Xoxokako plazan.

11:00 Lasterketa Beatsaburutik plazaraino.

11:30 Hamaiketako eskolan.

11:30 Puzgarriak haurrentzat.

12:30 Segalari eta biltzaileen giza proba.

16:00 Mus azkarra, izen-ematea.

16:00 Mus azkarra eskolan.

16:00 Puzgarriak haurrentzat.

17:00 Gorriti eta bere animaliak. Txokolate jatea.

20:30 Betizu jatea Xoxokako plazan.

01:00 Gaupasa: Gabezin taldea.

03:00 DJ Inbutei, goizalderarte.

Goizetik goizaldera arte.

IGANDEA 13

URNIETA Xoxokako jaiak

12:30 Meza. Ondoren, dantzariak.

17:30 Herri kirol lehia.

18:00 Sagardo probaketa: Setien, Eula, Bereziartua, Lizeaga, Oiarbide.

20:30 Jaien amaiera.

Goizetik iluntzera arte.

ASTELEHENA 14

URNIETA Ate irekiera

Gurasoek bertako espazioa, funtzionamendua eta hezitzaileak ezagutzeko aukera izango dute. Urriaren 14tik 17ra ate irekiera, arratsaldez.

17:00-19:00, Udal Ludoteka.

OSTIRALA 18

ANDOAIN Dantza

Kukairen "Erritu" dantza ikuskizuna.

21:30, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 19

URNIETA Deialdia

Zaborra biltzeko deialdia.

10:00, San Juan plaza.


IGANDEA 20

URNIETA Antzerkia

Giza gorputzaren erdiguner bidaia, Spasmo Teatroren eskutik. Familia guztiari zuzendutako ikuskizuna.

18:00, Sarobe. 3, euro.

ZINEMA

**ANDOAIN****ZINEMA****La directora de orquesta**

Lar, 12: 19:30, 22:00.

Ig, 13: 19:30.

Astl, 14: 19:30, 22:00.

Playmobil

Lar, 12: 17:00, euskaraz.

Ig, 13: 17:00.

Downton Abbey

Lar, 19: 19:30, 22:00.

Ig, 20: 19:30.

Astl, 21: 19:30, 22:00.



SINOPSISIA

**La directora de orquesta**

Zuzendaria, gidioia: Maria Peters. **Aktoreak:** Christianne de Bruijn, Benjamin Wainwright, Scott Turner Schofield,... **Herr.:** Herbehereak (2018). **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 137 min.

Orkestra zuzendari izateko borroka

Antonia Bricoren ametsa orkestra zuzendaria izatea da, baina emakume izate hutsagatik ez dute kontutan hartuko.

Gertaera errealetan oinarrituko filma da, Brico Rotterdamen 1902an jaiotako pianojole eta orkestra zuzendariaren bizitzan

oinarritzen baita. Berlingo orkestra filarmonikoa zuzentzera iritsi zen, gaur egun ere emakumezkoa gutxiengoa den eremuan murgilduz.

Peters zuzendariak bere herrialdean ia ezezaguna zen kasua zinemara eraman du.

Batukada feminista Andoainen



Urte batzuk badira batukada feminista abiatu zela, Andoainen. AIURRI

Urriaren 14an, Andoaingo Jabekuntza eskolaren baitan, hasiera emango diote batukada feministari. Datorren urriaren 14an izango da lehen hitzordua, eta bigarren 28an. Abendura bitarte hitzordu gehiago egitekoak dira. Beti ere astelehenarekin, iluntzeko 19:00tatik 21:00tara. Gazte Lokalean elkartuko dira, Vicedo eta Sarasketa irakasleen esanetara. Informazio gehiago Urigain etxean.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Potto!
Irailaren 30ean 14 urte bete zenituen. Ez galdu zure irrifar zoragarri hori. Muxuak, etxeokak



ANDOAIN Beñat
Urriaren 13an 17 urte. Zorionak, bihotzez, familiaren partez. Segi aurrera!!!



ANDOAIN Ainhoa Makazaga
Urriaren 13an 26 urte. Mila mila zorion!!! Jarrai ezazu orainarte bezain irrifartsu.



ANDOAIN Ander
Nork beteko ditu 12 urte urriaren 12an? Gure etxe mutiko Anderrek. Muxuak. Etxeokak



URNIETA Ibai eta Olaia
Urriaren 14an Ibaik 12 urte. Olaia izebak urriaren 12an betetzen ditu urteak. Zorionak bie. Etxeokak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 12 eta igandea 13
ANSA: Ondarreta, 8.
943 59 13 02 Andoain.

URNIETA

Larunbata 12 eta igandea 13
ODRIOZOLA: Idiazabal, 18.
943 334 014 Urnieta.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

Aldaketa klimatikoaz jabetzeko ekimenak

Bergaretxe eta Montero urnietarrak DBH 3 mailako bi ikasle dira, eta aldaketa klimatikoari buruz herria ohartarazi nahi dute. Ostegunean hitzaldia eskainiko dute Lekaion, 18:00tan hasita. Eta hilaren 19an zabor bilketa antolatu dute

Erredakzioa URNIETA
Ikastetxe mailako egitasmoa herri-za baltzea erabaki dute, eta ostegun honetan Magale ikastetxeko Jone Bergaretxek eta Lucia Monterok hitzaldia eskainiko dute Lekaion. 18:00tan hasiko da, aldaketa klimatikoak hizpide hartuta. Ez dira horretara mugatuko. Hitza eta ekintza lemari jarraituz, Urnietan barrena barreiatuta dagoen plastikoa eta zaborra biltzeko bi hitzordu antolatu dituzte. Lehena urriaren 19an izango da, 10:00tatik 12:30era San Juan plazatik abiatuta. Zaldundegitik Hernani aldera abiatuko dira. Azaroaren 16an ekimenak segida izango du



Lucia Montero eta Jone Bergaretxe urnietar gazteak.



Asier Niebla Martinez urnietar gaztea. AIURRI

600 lagun elkartuko dira Nieblaren aldeko lasterketan

San Juan plazatik abiatuko dira oinezkoen martxa eta lasterkarien lasterketa, larunbat arratsaldean

Erredakzioa URNIETA
Urriaren 11n, ostiralarekin, Asier Niebla Martinez gaztearen heriotzaren lehen urteurrena beteko da. Berriki, Aiurri astekarian bere amak eta anai-arrebek lekukotza gogorra utzi zuten. Ez dute ahaztu nahi. Ez senideek, ezta Asierren lagunek ere. Urriaren 12rako herri lasterketa antolatu dute, eta lasterka edota ikusle modura ahalik eta herri-gehien hurbiltzea nahiko lukete. Oinezkoentzat eta lastekarientzat ibilbide bana prestatu dute. Biak ala biak San Juan plazatik abiatu eta bertan amiatuko dira. Oinezkoen martxa 16:00tan abiatuko da, eta lasterkariena 16:20tan. Udalak emandako datuen arabera, jendetza elkartuko dela ziurra da.

Omenaldi ekitaldia
Lasterketaren sari banaketa ekitaldia eta gero, ekitaldi sor-

ta iragarri dute: Taldeko argazkia, bi minutuko isilunea, indarkeria matxistari loturiko arte erakusketa... Ekitaldia senideen parte hartzearekin amiatuko da. Oholtzara igoko dira eta bertatik Asier anaiak sortu duen kantua eskainiko dute.

Lasterketa eguneko kamiseta
Bilduko den jendetza ikusita, antolatzaileak eguerdiko 12:00tan hasiko dira kamisetak banatzen. San Juan plazan bertan egongo dira. Lasterketako dortsalak ere orduan banatuko dituzte.

Eragina trafikoan
Jaietan egiten den bezala, ekitaldiak irauteen duen bitartean San Juan plaza itxita egongo da. Herrigunetik Xoxokara igotzeko asmoa dutenek, arratsaldeko 16:00ak baino lehen egin beharko dute. Eta, bestela, Andoain aldetik igo beharko dute.

JOSEBA TAPIA

noqua

Argazkia: Kepa Gonzalez

ZUZENKO DISKOAREN GRABAKETA

USURBILEN

Urriak 25

Sutegi 20:00 eta 22:30

SARRERAK: 10€ aldezturik Usurbilgo Bordatxan, Txirristan, Lizardin eta NoquaIn eta egun berean 13€ Sutegin



Porrotx pailazoa. AIURRI

Pausoka eguna Hernanin, larunbat honetan

Egitaraua aurkeztearekin batera, pintxoak, edariak eta tonbola izango direla iragarri dute

Erredakzioa URNIETA

Pausoka egunaren edizio berria ospatuko dute, larunbat honetan. Egoitza nagusia Urnietan du elkartek, baina aski ezaguna da inguruko herriekin duten lotura. Aurtengoan Hernanin ospatuko dute Pausoka eguna, goizean hasi eta iluntzera bitartea. Elkarteko ordezkariak, sare sozialen bitartez zabaldutako mezuaren bidez, parte hartzeko deia luzatu dute: "Tailerrak, aurpegi margotzea eta puzgarriak izango ditugu. Eta bazkaltzeko, paella jate solidarioa ere antolatu dugu. Zatozte denok egun zoragarria gurekin pasatzera!". Ospakizuna Hernaniko Urumea ikastolan izango da.

Urriak 12, larunbata. Egitaraua

- 11:00** Pausoka egunaren irekiera ekitaldia.
- 11:15** Ezagutu Pausoka tailerra.
- 11:30** Aurpegi margotzea eta eskulanak.
- 12:00** Porrotx pailazoaren emanaldia.
- 13:30** Paella jate solidarioa.
- 15:00** Ginkana.
- 15:30** Haur tailerrak.
- 16:00** Marsel magoaren saioa.
- 17:00** Puzgarriak.
- 18:30** Zozketa solidarioa.
- 19:00** Pausoka egunaren amaiera.

AZKENA

Mendi ibilbide ezberdinak, eskualdean barrena

Familia giroan edo lagun artean, eskualdeko udalek igande honetan ibilbideen egunean parte hartzeko deia luzatu dute. Iaz, 360 ibiltari erakarri zituen jarduera fisikoa bultzatzea helburu duen ekimenak

Erredakzioa ANDOAIN

Tipi-tapa, igande honetan eskualdea lotzen duten ibilbideetan barrena ibilalditxoak osatzeko aukera dago. Andoaingoan egin zuten aurtengo edizioaren aurkezpen ekitaldia, eta parte hartzeko deia berezia egin zuten: "Lehiatzeko ez den eta edozein publiko motarentzat egokia den jarduera fisikoa egiteko eta Buruntzaldea eskualdeko eta bere landa-ingurune natura ezagutzeko aukera dugu. Besteak beste, bidezidorrak eta bideak ditugu. Bost ibilbide daude aukeran, landako paisaiatik barrena pasieran gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatuz eta baserri, baseliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz".

Ibilbideak osatzeko informazio osagarria

Ibilbideotako bat egitera animatzen denak nondik dabilen argitzeko hainbat baliabide izango ditu eskura: "Herrietan ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude. Panel horiek, gainera, aurtun berritu ditugu. Bideetan, berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zutoinak daude, udalerri bakoitzaren identifikazio koloreekin".

Kontrol guneak

Argibideak eta jan-edana eskainitzeko baliatuko dira kontrol gune ezberdinak. Ibilbidea egin hasteko orduan, partaide bakoitzak abiatzen den herriko zigilua izango duen txartela jasoko du.

Datuei erreparatuta, iaz lagunek eman zuten izena. 174 emakumezkoak izan ziren, eta 186 gizonezkoak.



Eskualdeko udalek elkarlanean antolatzen duten ekimena da. Aurtengo edizioaren aurkezpen ekitaldia Andoaingo udaletxean egin zuten. AIURRI

Itzulerako bus zerbitzua

Parte hartzaileek itzulera autobusez egiteko aukera izango dute, aurreko urteetan bezalaxe. Bus zerbitzua baliatzeko, hori bai, antolakuntzak hasieran emandako txartel zigilatua aurkeztu beharko da. Orain arte inoiz parte hartu ez duenarentzat, partaide bakoitzak aukeratutako herritik abiatzerakoan zigilatutako txartel bat jasoko du. Amaieran nor bere herrira itzultzeko autobus zerbitzua baliatu ahalko du, baina ezinbestean aipatu txartela erakutsiz.

Ordutegiak:

- Aginaga, Ezpaldiko gasolindegia: 12:00, 13:00, 14:00.
- Usurbil, San Inazioko biribilgunea: 12:07, 13:07, 14:07.
- Lasarte-Oria, Dorretzeko biribilgunea: 12:15, 13:15, 14:15.
- Andoaingo, Goiko plazaren atzealdea: 12:30, 13:30, 14:30.
- Urnietako, Kioskoak geltokia: 12:40, 13:40, 14:40.

Navi Ruta APPa

Ibiltariak modu jarraituan jaso dezakete informazioa: kokapena, jarraitu beharreko norabidea, interes-guneak.... Aplikazioa deskargatu eta ibilbide bakoitza aktibatzeko paneletan edo kontrol guneetan aurkituko diren QR kodeak eskaneatu beharko dira.

Hamabigarren edizioa

Urriak 13, igandea

- Ordutegia: 08:00-14:00.
- Herriak: Usurbil, Lasarte-Oria, Urnietako eta Andoaingo.
- Ibilbideen koloreak:
 - Andoaingo: urdina.
 - Lasarte-Oria: urre zaharra.
 - Urnietako: berdea.
 - Usurbil: laranja.

Ibilbideak

- Andoaingo-Lasarte-Oria: Ibilbide urdina eta urre zaharra; 7,9 Km. Mendiko oinetakoak beharrezkoak. Ibilbidea osatzeko bi aukera: Buruntza mendiko gailurra eginez, edo mendia inguratuz.
- Andoaingo-Urnietako: Urdina eta berdea; 4,8 Km. Oinez edo bizikletaz egitekoak.
- Andoaingo-Usurbil: Urdina eta laranja; 14,9 Km. Andatzatik barrena; oinezkoentzat soilik, mendiko oinetakoak beharrezkoak dira.
- Lasarte-Oria-Urnietako: Urre zaharra eta berdea; 3,9 Km. Oinez edo bizikletaz egitekoak.
- Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga (Santuenetik barrena): Urre zaharra eta laranja; 9 Km. Oinez edo bizikletaz egitekoak.

Kontrol guneak:

- Usurbilen: Santuenea, Zorrotzeko zubiaren parean.
- Aginagan: Mapil inguruan.
- Andoaingo: Udaletxean.
- Lasarte-Oria: San Pedro elizaren ondoko plazan.
- Urnietan: Udaletxean.

Informazio gehiago

Buruntzaldeko kiroldegietan edo buruntzaldea.eus webgunean.